

Aitor Oiarbide

PALLARS SOBIRÀKO GOI-MENDIAK ESKIEKIN

*Kataluniako Pirinioetan Tavascandik Àreura bost egunetan:
Mont Roig, Certascan, Cap de Broate, Pica d'Estats eta Vall Ferreran barrena.*

1 EGUNA (Ostegun Santua): TAVASCAN - MONT ROIG

BEZPERAN Tavascango taxistarekin adostutako hitzorduan esan bezala, goizeko 8:00etarako Tavascanen ginen, maparen gainean hain erraz marraztutako bost eguneko zeharkaldia hasteko prest. Indarrak aurrezte aldera, Tavascandik Noarre aldera igotzen den bidea 4x4 batean egitea erabaki genuen. Zuhur jokatzeari

gora joan ahala, elurtegiak handituz zihoazen, azkenean elur izara bihurtzeraino. Orduantxe jarri genituen eskiak beren-berena duten tokian, oinpean alegia, eta ez bizkarrean. Igo nahi genuen Mont Roig mendia aurrez aurre izanik, Roia de Mollàs haran ederrean jarraitu genuen aldapa samurretan gora. Harana geroz eta gehiago estutzen da Clot de l'Escala ordokira iritsi arte. Behin hona heldutakoan, ezkerrera jo behar da, hegoalderantz aldapa piko nabarmenean gora. Hamaikak eta laurdenak aldera, Estany inferior de la Gallina lakuaren ondoko muino batean dagoen aluminiozko aterpera iritsi ginen (2280 m).

Bertan hamaiketako egin eta motxila arindu ondoren, gailurra zapaltzeko irrikaz abiatu ginen 11:40etan. Estans de la Gallina izeneko lakuak inguratuz edota zeharkatuz igotzen gindoazen hegoalderantz, Ventolau (2843 m) tontor tentagarriarantz. Hala ere, ez genion Ventolauri ekin. Kontrara, Estany Majorretik (2500 m) iparrekialdera dagoen ibarrean, Pic de la Gallina eta Pic Major de la Gallina tontorren arteko lepoa (2670 m) erdietsi genuen. Metro batzuk jaitsi eta zeharka jarraitu genuen, Mont Roigen azpiko kanal batera iritsi arte. Kanala gaindituta Mont Roigeko gandorrera atera ginen. Gandorra estutu eta harriak ugaritzerakoan, eskiak kendu eta oinez egin genituen gailur bikietara iristeko azken metroak. Ordu biak eta laurdenetan gailurreko cairnaren alboan ginen (2868 m). Eguraldi zoragarria zegoenez, lilitratuta geratu ginen ikuspegiaren zabalaz: hurrengo egunetan igo nahi genituen tontorrak (Certascan, Pica d'Estats...), Monteixo eta, gehien nabarmentzen zena, hurbileko Mont Valier mendi lerdena. Eguraldia ona izan arren, mendebaldetik mehatxuzko hodei lodiak ari ziren gerturatzen.

Eskiak jarri eta finkadurak jaisteko ondo lotu ondoren, lehendabizi aldapa zabalean behera eta gero, berriz, sakonune ttiki batzuk kateatuz, gozatu ederra hartu genuen elur izoztu gogorrean jaisten. Ordu erdi eskaseko jaitsiera bikaina amaitu genuen aterpean. Pilatutako nekea medio, ondo merezitako lozorroan sartu ginen hirurok, kanpoan eguraldia zeharo aldre-

besten ari zen bitartean.

2 EGUNA (Ostiral Santua): MONT ROIG - CERTASCAN

DUDA-mudazko eguraldia hobetuko zen esperantzatan, geure irteera atzeratzea erabaki genuen. Azkenean, 10:30etan atera ginen Enric Pujol aterpe ttiki atseginetik, hala ere. Oso berandu,



■ Zeru oskarbi, Mont Roig aldera gindoazela, parez pare geneukan bi gailur bikien arteko harratera igotzen den couloirra edo kanala

gure nahia. Ez genituen indarrak alferrik ahitu nahi, gero premia izatean falta ez izateko. Taxistak basoan utzi gintuen 1600 bat metrotako altueran.

Eskiak motxilaren uhaletan estu lotu, bizkarrera igo eta ibiltzen hasi ginen 8:45ak aldera. Pleta Palomeran ordura arteko iparralderako norabidea jarraitu beharrean, mendebaldera jo genuen Roia de Mollàs haranean barneratuz. Urki, pinu eta abarrez osatutako basoan barrena ginderamatzen bidezidorra oso nabarmena ez denez, "azti" ibili beharra izan genuen norabidea ez galtzeko.



■ Ezkerretik hasita: piramide itxurako Punta del Port tontor tentea eta Broateko gailurrak Salibarriko zirkua osatuz. Behean Estany Romedo de Baix laku

beraz. Aurreko egunean igotako pendiz izoztuetan behera kontu pixka batez jaitsi ginen Clot de l'Escalara. Hortik behera jaitsiera lasaia goa egin genuen 1920 metro tara iritsi arte.

Estany del Portera iritsi nahi genuen, ahal zela, eskiak motxilan jarri gabe. Estany Ribereta de Baix laku ttikien ordokitxora igo eta hemendik berriz zeharka-meharka joan ginen, 2000 metro tatak sestra-kurba (irudimenezkoa, jakina!) jarraikiz, denborarik gehienean eskiatzen, nahiz eta tartekako lurmen batzuetatik, eskiak eskuetan pasatu behar. Zeharkaldia uste baino hobeto atera zitzaigun eta berehala iritsi ginen Estany del Portera (2040 m gutxi gorabehera). 12:30ak ziren. Haizea zakar samar zebilenez, harri baten babesean jarri ginen bazkaldu eta mapak begiratzeko.

Ordu batean ostera abian jarri zen hirukotea. Oraingo ibilbide zatiarekin ez geneukan lan makala, zati honetan ez baitago –guk dakigula behinik behin– bide jakinik. Gainera, “inri” handiagorako, eguraldia lardaskatzen hasia zen. Zati hau oso gogorra zena bagenekienez, eskiak motxilan eskegi eta kementsu ekin genion aldapatzar haiek igotzeari. Gure mendizale senari jarraituz, al bait tokirik “erosoenetatik” jarraitu genuen: batean “trepada” ttiki bat eginez, bestean pinuren baten sustraiei utsiz... Nola edo hala behintzat iritsi ginen eta 13:15etan Estany de Flamisella gaineko lepoan geunden, 2270 metro tan. Hortik aurrera altuera galtzera derrigortuta geunden. Hala, sakan sakon bateko lakura jaitsi beste aukerarik ez zegoen (2150 m).

Laku bazterrean geundela, eguraldia arras itsusitu zen: lehengo haize boladak, bisuts bihurtu ziren eta lainoa beheratu, hortik

■ Estany Romedo de Dalt lakutik behera haranean barrena goxo-goxo eskiatzen



aurrera geratzen zitzaiguna estaliz. Egoera ez zen batere samurra: eguraldi petrala eta behelainoaz gain, ia 2600 metro tan dagoen Certascango lepoa falta zitzaigun oraindik. Bi aukera genituen: mapetan amestutako zeharkaldia bertan behera uztea (alegia, Noarretik Tavascanera joatea zen lehenengo aukera, han baitzegoen kotxea) ala kosta ahala kosta aurrera segitzea. Egoera hura ahalik eta modu arrazoituenean hausnartu ondoren, zenbait zalantza izanagatik ere, aurrera jarraitzea erabaki genuen. Bene-benetan diotsuet uztekotan egon ginela.

Iparrekialderantz jotzen duen aldapa pikoari ekin genion lehendabizi. Geroxeago, malda samurragoetan barrena, Estany Blausetako laku handienaren ertzerira iritsi ginen (2330 m). Hemendik aurrera norabidea erabat ekialderakoa da, harik eta galbiderik ez duen haranean barrena Coll de Certascanera heldu arte (2590 m). Lanik asko izan genuen lainopean elkarrengandik ez galtzeko. Hori dela eta, hurbil genuen Tuc de Certascan (2853 m) gailurrera joateko erronkaren aurrean, amore eman behar izan genuen. “Ezin denean ezin da, eta kitto!”. Arratsaldeko bostetan lepoa zeharkatu genuen. Lepotik behera aurreko

norabide berari segituz, Certascan lakura jaitsi ginen zenbait tartetan majo gozatuz. 17:30etan heldu ginen Certascango aterpera, barruan goxo-goxo, epel ederrean zeudenen artean harridura aurpegiak eraginez. Ikaragarri estimatu genuen aterpeko zaindaria den Alejandro Gamarrak egindako ongi etorri bero abegikorra. Biba zu!

3

EGUNA (Larunbat Santua):

CERTASCAN - ESTANY DE PINET

EGURALDI zoragarria atera zen. Aterpetik kanpo aldetik Alejandro zaindaria zenbait azalpen lagungarri eman zigun ahalik eta era zehatzenean. Mila esker horregatik, Alejandro! 9:30etan (berriz ere berandu, beraz) irteteko prest ginen presa handirik gabe.

Aurrea aterpetik pixka bat jaitsita, segidan 2200 metro tan altuerari eutsi genion zeharka joanez, ondoren, berriz, eguneko lehenengo aldapari ekiteko. Hala, aterpeko zaindaria adierazitako pinu bakarreko ataka gaitu genuen (2230 m). Eguraldi ederraz geneukan, parez-pare, egun hartan egin beharreko ibilaldiaren zati handi bat (beste zati handi bat ordea, ezkutaturik). Jaitsieran eguzki epeletan ederki gozatu genuen. Hormatutako Estany Romedo de Dalt (2120 m) ezkerrean utzita, haranean barrena goxo-goxo jarraitu genuen eskiatzen, harik eta Estany Romedo de Baixera (2020 m) iritsi arte. Laku hau sendo hormatuta ez zegoenez, “gutxi fio!” eta ezkerreko ertz malkarretik inguratu behar izan genuen. Lantegi ederra guretzat, artean altuera gehixeago galdu beharra: lastima!

1940 bat metro tan, Clot de Salibarriko ordokira “eramango” gintuen kanalaren hasieran geunden: eskiak bizkarrean ipinita jo eta su ekin genion aldapatzar arras piko hari, “emaioi egurra!” neure artean esanez. Gisa horretan berrehun metro pasatxo igo ondoren, malda pixka bat “etzatean”, berriz ere eskiak “beren lekura” itzuli genituen. Gure parean, gain-gaiean genituen Broateko gailurrak eta Punta del Port tontor tentea, zirkua osatuz. Hura paisaiaren bikaina! Eguraldia ordea, pixkanaka trakestuz zihoan. 2250 metro inguruan hegoalderantz aldatu genuen norabidea, Broateko gailurren mendebaldeko lepoa baitzen hurrengo jomuga. Lehendabizi aldapa samurragoetan, gero malda handiagokoetan zigi-zaga eta azkenik eskiak motxilan jarrita ekin genion, beraz. Ondo kostata, baina 2615 bat metro tan dagoen lepoan geunden. Hala ere, oraindik gandorri segituz igotzen jarraitu beharra geneukan. Gailurreriako tontorrik garaiena eskuera genuenez, “segi gora!”. 15:00etan Cap de Broaten geunden (2735 m). Bisutsa ari zuen

gogotik. Gainez gain pixka batean ibili eta gero, zeharka "irristatuz" hasi ginen jaisten ahalik eta altuera gutxiene galduz, Montestaure ondoren dagoen "Passage du Bang" delako ataka bikoitzera iristeko. Era honetan, ahalik eta indar gutxiene xahutuz bertaratu ginen (2610 m).

Lehendabizi ezkerreko atakatik jaisten den kanalarri bota genion bistadizoa: "De diooo! Hemendik jo behar al diagu?" Iparrerialdera begira dagoen kanal estu, ospel eta iluna da, ikaragarri pikoa gainera. "Ea bada, ikus dezagun beste atakatik beherakoa. Ene! Hau okerrago zagok eta". Atzera ere, ezkerrekoari bigarren bistadizoa eman genion. Hirugarren egun honetan ere berandutzen ari zitzaigun eta gainera, ustekabe hau. Zer egin erabakitze



■ Cap de Broateko gailurrean. Atzean eskubian "Passage du Bang" delako ataka bikoitza

zako eztabaidan hasi ginen. Okerrenean behintzat, Broateko aterpe libreira joan gintezkeen 20 minututan. Aukera honekin ordea, gure planak hankaz gora jartzen ziren. Ah! eta gainera, ditxosozko hiruna "barrita" baino besterik ez geneukan afaltzeko. Berriz ere zirt edo zart egin beharrean geunden, beraz. Hirugarren bistadizoa bota ondoren, pentsatu genuen beharbada kanal hura jaits genezakeela. Azkenean, di-da, pentsatu eta jaitsi egin genuen. Eskiak bizkarrean paratu, geu buelta emanda maldari begira jarri eta elur izotzuan bi granpoiak, pioleta eta -beste pioletik ezean- ukabila ondo sartuz, tximinia jaisteari ekin genion poliki-poliki. Manto baina seguru.

Kanaletik irtetean, 2500 m inguruan, malda zerbait leuntzerakoan, berriro ere eskiatuz oldartu ginen behera. Gure eguneko helmuga, Estanh de Pineteko aterpea (2230 m), parean egongo zen, baina ezin joan gintezkeen zuzenean, Port de Sotlotik datorren erreka arroila zeharkatzerik ez baitzegoen iluntzeko ordu haieran. Agian eguargiz bai, baina 18:00ak ziren jadanik. Hortaz, metroak "alferrik galtzera" geunden behartuta. Elur heze eta oso astunean behera joan ginen, beraz, erreka gurutzatzeko toki egoki batera heldu arte (1920 m inguru).

Aterpera iristea besterik ez zitzaigun falta. Marka da gero, alferrik galdutako metroak gero berriz igo beharra! Hirurehun bat metrokoa zen igotzeko geratzen zitzaigun aldapa. Ilunpean kope-tako argien laguntzaz jo genuen gora etsi-etsian, harik eta laino artean Pineteko aterpea doi-doi antzeman genuen arte. "Gaueko" zortziak pasatuta heldu ginen, bertakoen aurpegi txundituen artean. Zaindaria, afaltzeko ordua aspaldi pasea bazen ere, oso ondo hartu gintuen. Ahate izter ederra jan ondoren, indar guztiak ahituta, leher eginda joan ginen lotara.

OHARRA: Egin eta gero jakin genuen etapa hau egiteko hobe dela Port de l'Artigatik iragatea, Passage du Bang izeneko lepo arriskutsutik baino.

4 EGUNA (Pizkunde Igandea): ESTANH DE PINET - VALL FERRERA

ATERPEA moderno eta eroso izanik ere, bezperako "egurra" zela medio, gauean ez ginen ondo deskantsatu, hainbestekoa zen-eta nekea! Eguraldi ederrak, ordea, indarberritu egin gintuen laugarren egunari gogoz ekiteko.

9:20ak aldera hasi ginen aurreneko pendizei aurre egiten, betebetean hegoalderantz. Aurreraxeago aldapan zeharka joan beharra izan genuen berehala, ibilera deseroso samarrean. Eskerrak behintzat, gure aurretik joandakoek eski-arrasto ona utzi zigutela. Elurrolde arriskuaz ez da komeni hemen barrena ibiltzea. Estanh d'Estats laku hormatuaren parean ekialderantz aldatu genuen norabidea, harik eta Montcalmeko lakura irten ginen arte. Hemendik gora, berriro hegoalderantz, malda handiko hainbat "pala" gaintu genuen "eski-bidean" zigi-zaga. Montcalm (3077 m) mendiaren mendebaldeko hegian dagoen lepoa (2905 m) gaintutakoan, parez pare geneukan Pica d'Estats. Neure artean nioen: "Beno, tontorrerako ez zaiguk, bada, hainbeste falta, hala ere!".

Ordu erditxo baten buruan Pica d'Estats eta Verdaguer tontorren azpian geunden. Eskiak bertan utzi eta azkeneko metroetan gora abiatu ginen. Jada -katalanek dioten bezala- "La Pica"ko gailurrean ginen, 3143 metroan, Kataluniako mendirik garaiene-

an. Lau ordu eta erdi pasatxo hartu zigun Estanh de Pineteko aterpetik. Hura poza! Gailurreko metalezko gurutzetik zintzilik egon ohi diren "senyeren" aurrean ohiko argazkia atera genuen, geure ikurriña pozarren erakutsiz (Aberri Egunean, sinboloen bidez bi herrien arteko elkartasuna nabarmendu nahian). Despedida moduan "Gora Euskadi!" oihu egin nuen. Eskiak jarrita nahikoa elur onean behera abiatu ginen gustora Cometa d'Estats (2740 m) sakaneraino. Gero atzera gora, foka larreak ipinita, 14:45etan Port de Sotllo izeneko lepoan geunden, 2890 metroan. Hegoaldera begira Monteixo mendi tontea eta Vall Ferrera ikusten genituen.

Lepotik behera hastean, segituan igarri genuen jaitsiera hura erruz gozatzeko baino gehiago, ahal zen moduan jaisteko izango zela: batetik, elur geruza lodi, heze eta astuna zegoelako (tarteka "zopa-zopa" eginda); bestetik, La Picatik eroritako elurrolde zabalen aztarnen ginetik igaro behar genuelako. Behin haranaren beheko aldean, aldapa laburretan behera nahiz "arraunean", ezkerrean utzi genituen Estany d'Estats eta Estany de Sotllo (2350 m) lakuak. Azken honetan patxadaz "bazkaldu" genuen. 2190 metroan dauden laku tikietatik aurrera lurmenak asko ugaltzen zirenez, eskiak erantzita jarraitu behar izan genuen. Ordu eta erdi falta zitzaigun gutxienez, galbiderik gabeko bidezidorrean behera Vall Ferrerako aterpera iristeko. Laugarren eguna zen jada eta egun haue-tan guztietan hartutako "jipoi" handien nekea pilatuta geneukan gorputz zailduetan. Adorez, ordea, ondo genbiltzan: "aurrera bolie!".

18:00ak aldera heldu ginen Vall Ferrera aterpe tiki "moñoñora" (1930 m). Hala ere, ba al dago munduan komunera irakina aterpea bera baino handiagoa duen beste aterperik? Gauza aldrebesagorik!. Etapa honetan ere -nola ez?-, berandu iritsi ginen: "Martxa txarra, gero!".


5 EGUNA (Pazko Astelehena): VALL FERRERA - ÀREU

LASAI esnatu eta gosaldtu genuen. Aterpetik taxista bati hots egin genion Pla de la Selvan har gintzan eta ondoren, aterpetik bidezidorrean behera, hamabost minututan Vall Ferrerako pista nagusian ginen. Pista honetan behera izeien artean Ipar (edo "iraupen-") eskian jardun genuen baldar gure teknika traketsarekin. Ezusteko bat: "Hara! Honako hauek ez al dirudite hartz baten arrastoak?".



MAPA HAU ERABILTZEKO BAIMENA, ALEJANDRO GAMARRARI ESKATU DIO

■ Pica d'Estats edo "La Pica"ko gailurrean (3143 m) Jose, Elena eta hirurak pozarren. "Senyera" eta ikurriña elkartuta



Nahiz eta jakin bagenekien ziurrenik mastin arrazako zakurren batenak izango zirela, agian, Pyrenaicako 176. zenbakian aipatzen zen "Vall Ferrera-ko hartzairenak" izan zitezkeen. Telefono deia egin eta ordu pare batera elkartzen ginen taxistarekin, Pla de la Selva izeneko ordokian. "Akabo fandangoa!". Kitto. □

PARTAIDEAK: Elena Ibabe, Jose Rodríguez eta Aitor Oiarbide. (Argazkiak Joserenak).

DATA: 2003ko Aste Santua.

ZENBAIT ARGIBIDE INTERESGARRI

KATALANEZKO IZEN GEOGRAFIKO BATZUK:

- Clot, clotada: Sakana, batzuetan zirku itxurakoa.
- Coma: Haranburuko ordoki nahiz zirku itxurako sakana.
- Estany: Lakua, aintzira.
- Orri: Artzainen harrizko txabola txikiak edo saroiak.
- Pla, Pleta: Ordokia, lautada. Lehen artegi edo abereentzako itxiturei ere ematen zitzaien izen hau.
- Tuc: Tontorra.

ATERPEAK:

- Mont Roig azpiko Enric Pujol (2280 m): Zilindro tankerakoa. Kanpotik metalezkoa eta barrukoa, ostera, zurezkoa. Zaindaririk gabekoa. 12 laguntzako tokiak. Literak, koltxoiak eta mantak.
- Certascan (2240 m): 1993an erabat berritua. Aste Santuan eta ekainetik irailera zaindaria duena (Alejandro Gamarra). 40rentzako lekua. Otorduak ere ematen dituzte. Argibide gehiago: [00 34] 973 62 13 89.
- Broate (2130 m): 18rentzako lekua. Zaindaririk gabekoa. Literak, koltxoiak eta mantak.
- Estan de Pinet (2240 m): 50 laguntzako tokiak. Zaindaria du. Telefonoa: [00 33] 561 64 80 81.
- Vall Ferrera (1940 m): 35 leku dauzka. Manela Arroyok zaintzen du Aste Santuan, ekainetik irailera baita jai egun jakin batzuetan ere. Otordu zerbitzua ere badago. Argibide gehiago: [00 34] 973 62 07 54.

BIBLIOGRAFIA:

- ALEJOS, Luis, *Pica d'Estats-Puigmal*, Rutas Pyrenaica, 8, Euskal Mendizale Federakundea, Bilbo, 1988 (*Rutas y cumbres del alto Pirineo*, Euskal Mendizale Federakundea, Bilbo, 1988: 233-264 orr.).

- ANGULO, Miguel, *Pirineoak, 1000 igoera V (Aranetik Andorrara)*, Elkarlanean, Donostia, 2000.
- GAMARRA, Alejandro, "Certascan en invierno", *Pyrenaica*, 141, 1985: 358-361 orr.
- GAMARRA, Alejandro, "Certascan: parajes por descubrir", *Pyrenaica*, 175, 1994: 64-69 orr.
- SABATÉ, Jordi, "La Vall Ferrera y la Pica d'Estats", *Pyrenaica*, 176, 1994: 136-141 orr.

MAPAK:

- ANGULO, Miguel, *Pica d'Estats, Vallferrera, Monteixo, Certascan, Saloria*, 1:25000, Sua edizioak, Bilbo, 2001.
- *Haute-Ariège et Andorre, Pyrénées carte n° 7*, 1:50000, Randonnées Pyrénéennes, Institut Géographique National, Tarbes, 1993.
- *Pica d'Estats-Aneto, Parc nacional d'Aigüestortes i estany de Sant Maurici*, Pirineus-22, 1:50000, Institut Cartogràfic de Catalunya; Rando editions, Barcelona, 1999.
- SEMIR I DE ARQUER, Ramón, *Pica d'Estats-Mont Roig*, 1:40000, Editorial Alpina, Granollers, 1985.

INTERNET:

- www.certascan.com

RESUMEN

EL artículo nos describe un interesante recorrido de esquí de montaña por las crestas más elevadas del Pallars Sobirà. La propuesta que nos ofrecen estos tres montañeros-esquiadores, encadena en cuatro días de travesía las cimas de Mont Roig, Certascan y Cap de Broate, para culminar el proyecto –no podía ser de otro modo– con la "guinda" de la Pica d'Estats. Un interesante plan para una Semana Santa blanca en la alta montaña pirenaica.